



Universidad Euskal Herriko
del País Vasco Unibertsitatea

ESCUELA UNIVERSITARIA DE MAGISTERIO DE BILBAO
BILBOKO IRAKASLEEN UNIBERTSITATE ESKOLA

Gradu Amaierako Lana

HAUR HEZKUNTZAKO GRADUA

2018/2019 ikasturtea

**HEZITZAILEAREN BEHAKETA 6-8 HILABETEKO UMEEN
BAZKALORDUAN**

Egilea: Enare Muniategi Etxabe

Zuzendaria: Elena Herrán Izagirre

Leioan, 2019ko maiatzaren 27an.

Aurkibidea

1.	Sarrera orokorra.....	4
1.1.	Lanaren testuingurua	4
1.2.	Lanaren helburuak	8
2.	Metodologia.....	9
•	Diseinua	9
•	Partehartzaileak	9
•	Tresnak	9
•	Prozedura.....	11
3.	Emaitzak	12
3.1.	Hizkuntza, ekintza eta keinuen portaera nagusiak eta irizpideen artean gailenduena....	12
3.2.	Hasiera, korapiloan eta amaieran gailentzen diren portaerak	14
3.3.	Ume bakoitzaren txanda denean gailentzen diren hezitzailearen portaerak.....	16
3	Emaitzen eztabaida	18
4	Ondorioak.....	21
•	Lanarekin lotutakoa.....	21
•	Pertsonalak	22
	Erreferentziak	24

HEZITZAILEAREN BEHAKETA 6-8 HILABETEKO UMEEN BAZKALORDUAN

Enare Muniategi Etxabe

UPV/EHU

Gaur egun eskolaratzea inoiz baino goiztiarragoa da, eta lehen haurtzaroak bizitza osoan zehar duen garrantzia kontutan hartuta, hezitzailearen jardunaren inguruko hausnarketa beharrezkoa da. Hezitzaileak zaintza uneetan esku hartze zuzena egiten du, eta zaintza une garrantzitsuenetako bat jateko ordua da, bai energia iturri duen janariarekin bai hezitzailearekin harreman sendoa eraikitzen duelako. Gradu Amaierako Lan honen helburua egoera erreal batean, bazkalorduak behatzea da, hain zuzen ere, hezitzaile batek bazkalorduetan ekintzari, keinuei eta hizkuntzari dagokionez dituen portaerak eta joerak behatzea eta aztertzea. Behaketa sistematikoaren ondorioz lortutako emaitzek erakutsi dute hainbat alderdi izan behar direla kontutan zaintza kalitatezkoa izan dadin, umeari bere buruaren kontzientzia hartzen laguntzeko eta jatorduetan bere parte hartzea bultzatzeko.

Bazkaria, kalitatezko zaintza, hezitzailea, behaketa sistematikoa, kooperazioa.

En la actualidad la escolarización de los niños es más temprana que nunca, y teniendo en cuenta la importancia que la primera infancia tiene a lo largo de la vida, es necesario reflexionar sobre la actividad de la educadora. La educadora realiza intervenciones directas en los momentos de cuidado, siendo uno de los principales cuidados, la comida. En las comidas se crea una relación privilegiada, tanto con la comida, en tanto que fuente de energía, como con la educadora, en tanto que fuente de seguridad. El objetivo de este Trabajo de Fin de Grado es observar y analizar las comidas, y más concretamente, observar y analizar el trabajo de la educadora en lo referente a las acciones, gestos y lenguaje durante este momento de cuidado. Los resultados obtenidos a partir de esta observación sistemática muestran que hay que tener en cuenta distintos factores para que la comida sea un momento de cuidado de calidad, ayudando al/a la bebé a tomar conciencia de sí mismo/a y promoviendo su cooperación en las comidas.

Comida, cuidado de calidad, educadora, observación sistemática, cooperación.

Nowadays, the early schooling rate is higher than ever before, and considering the importance and transcendence of the first years of life, we must reflect on the educator's work. The educator performs direct interventions when taking care of children, one of the most important care moments is the meal, because children build safe and strong relationships with the food (which will be their energy source) and with their caregiver (which will be their security source). Thus, the aim of this work is to observe and to analyze the educator's performance at mealtime, in particular the aspects related to actions, gesture and language. The outcomes of this systematic observation show that different aspects must be taken into consideration in order to become the meal into a moment of quality care. This way, we would help children to become aware of themselves and promote their participation in meals.

Meal, quality care, educator, systematic observation, cooperation.

1. Sarrera orokorra

1.1. Lanaren testuingurua

Gaur egun, eskolatzeko goiztiarraren tasa inoiz baino altuagoa da Euskal Autonomia Erkidegoan, eta, bizitzaren lehen hiru urteek duten garrantzia eta transzendentzia kontuan hartuta ezinbestekoa da lehen haurtzaroari arreta berezia eskaintzea eta haren kalitateri buruzko hausnarketa egitea (Herrán, 2014).

Wallonek (2018) azaltzen duenez, pertsonaren bilakaera bizitza psikikoaren hasieran, aldi afektiboan, hasten da eta haurraren garapenean umea den eta izango den pertsona ere osatzen da. Beraz, umearen lehen hilabeteetako errai-orekak bideratu ditzakete etorkizunean umeak izango dituen jokabidearen oinarri sakonak. “Subjektuaren eta ingurumenaren arteko lehen harremani dagokienez, izaera afektiboa dute: emozioak dira.” (Wallon, 2018, 65. or.). Emozioak eta jarduera sensoriomotorrak behin eta berriz gauzatuz ohiko testuinguruetan, umearen gaitasunez gain bere nortasuna ere eraikiko da; norbanakoaren gauzak egiteko era propioa. “Ekintzari eta hari loturiko kontzientzia motaren artean ez dago hirugarren printzipio baterako lekurik. Hastapenetan, kontzientzia ekintzarekin nahasten da, eta, aldi berean, haren ondorioa eta pizgarria da” (Wallon, 2018, 47. or.).

Hau horrela, bizitzako lehen urteetan umeak izandako esperientziak gerora bere nortasunean, buruaren irudi eta kontzientzian, jardueran eta motrizitatearen garapen globalean izango duten garrantzi eta transzendentzia kontutan hartuta, behar bestean eskaini behar arreta eta lan handia lehen haurtzaroari. Hori egin zuen Emmi Piklerrek.

Emmi Piklerrek medikuntza ikasketak egin zituen Vienan, eta Pirquet eta Salzer irakasleekin pediatria ikasi zuen. “Garai horretan fisiologiaren eta osasun-prebentzioaren alorreko ezagutza berritzaileak barneratu zituen haiengandik: fisiologia ikertzeak gorputz bizia bere ingurumen naturalean behatzea eskatzen du; eta prebenitzaiek lotura handiagoa du norbanakoak ingurunearekin duen harmoniarekin eta elkarrekintzarekin, gaixotasun zehatz bati loturiko neurri bereziekin baino” (Herrán, 2014, 78. or.). Piklerrek hasieratik jarri zuen zalantza helduaren esku hartzeko beharrezana, zaintza uneetan salbu, eta bere esperientzia profesionalaz gain bere alabarekin ere praktikan jarri zuen haurtzaroarekiko zuen ikuskera. Hau da, umearen erritmoa eta inizatiba errespetatu, eta modu askean eta autonomoan jolasten eta mugitzen uztea. Eta honen arabera jardun zuen eta aholkatu zituen familiak hamar urtetan zehar familia-pediatria legez egon zenean lanean.

1946an Piklerrek Budapesteko Lóczy kaleko umezurtz-etxea antolatzen eta zuzentzeko ardura hartu zuen. Orduan, hiru helburu proposatu zituen, alde batetik, beharrezkoak diren eta familia baten baina zailtasun handiagoekin, instituzio batean, umeen garapen fisiko eta psikiko osasuntsua bermatuko duten baldintzak eskaintzeko aukera dagoela erakustea. Bestetik, bere hezkuntza proposamen propioa frogatzea; eta hirugarrena, “(...)poder hacer observaciones longitudinales sobre el desarrollo de bebés y niños sanos y sobre los requisitos de este tipo de desarrollo, y hacerlo (...) en circunstancias de la vida cotidiana, bien definidas, en condiciones controladas y aptas para ser descritas.” (Falk, 2018, 41. or.).

Gauzak horrela, Pikler-Lóczy hezkuntza ereduaren bi ardatz nagusiak kalitateko zaintza eta jardueraren autonomia dira, eta zaintza ahalik eta pertsonalizatuena, bizi-esparru egonkorra, adin bakoitzaren beharrezkoak diren inguruneak, eta mugimenduaren askatasun osoa sustatzen ditu (Herrán, 2014). Umeen bizitza eta helduekin dituzten harremanak hurrengo oinarrien arabera ulertzen ditu, baina ereduak ez luke zentzurik izango lau printzipioei garrantzi bera eman ezean (David eta Appell, 2010, Herrán, 2014):

1. Jardueraren autonomia.
2. Lehentasuneko harreman afektiboaren balioa, eta harremanen egonkortasunaren eta eskaintzen dioten oinarri emozional sendoaren garrantzia.
3. Umeari bere buruaren eta ingurunearen kontzientzia hartzen laguntzeko beharrezkoak.
4. Umeak osasun-egoera fisiko ona izatearen garrantzia. Osasun egoera hau aurreko printzipioen ondorioa eta aldi berean jatorria dela esan daiteke.

Jardueraren autonomia eskertu umeari motor orekatua bultzatuko duten eta garapen intelektualaren oinarria eraikiko duten esperientziak biziko dituen umeak. Horrez gain, pertsona heldu, sortzaile eta arduradun bat izateko portaerak garatzen dira, eta asetzeko eta poztasun iturri ere bada. Horregatik, lehen haurtzaroko umea ondo egokitutako egoeretan kokatu behar da, berezko eta bat-bateko jarduerak dakarren plazerra ezagutu dezan. Ezin ahaztu umeari jarduna esanguratsua izan dadin bere iniziatibaz sortutakoa izan behar duela, eta ondorioz, mugimenduaren askatasun osoa eskaini eta hau errespetatzeko, helduek ez du zuzeneko esku hartzerik egiten umeari jardunean.

“(...) resulta inútil y hasta desventajoso enseñarle a sentarse sentándole, a ponerse de pie, poniéndole de pie, etc., cosas que él puede aprender por sí mismo, por su propia iniciativa, con mejor calidad, mediante tentativas cargadas

de alegría y seguridad. Además se vería privado de una posibilidad de aprendizaje que habría influido favorablemente en todo su desarrollo” (Pikler, 1984, 17. or.)

Hala ere, zeharka jarduera motorra bultza dezake helduak, alde batetik, umearen aukera eta interesen arabera umea jartzen den egoerei jarraikortasuna emanez, eta material anitza eskainiz. Beste alde batetik, umearen erritmoa errespetatuz jabetza motorrari dagokionez; hau da, aurreko postura ondo menperatu ezean ez du hurrengorik ikasiko, eta helduak ez du umeak bere kabuz menperatzen ez duen posturaren batean jarriko. Edota, hitzez iruzkinen bat eginez, horrela, umeak berak lortutakoa aitortu eta bere aurrerapenen kontzientzia hartzen lagunduko zaio.

Umeari bere buruaren eta ingurunearen kontzientzia hartzen laguntzeko beharrianari erantzutea bultzatuko duten baldintzak egoeren oreka espazioan, eta ekintzen eta gertakizunen erregulartasuna denboran dira. Horrez gain, zaintza uneetan umeari parte hartzeko aukera emateak lagundu egiten dio bere buruaren jabetzan, ezagutzan eta adierazpenean.

Umearen osasun-egoera fisiko onari dagokionez, honen garrantzia azpimarratu behar da; izan ere, osasun egoera hau beste hiru printzipioen ondorioa eta aldi berean jatorria dela esan daiteke. Ume bakoitzari erregimen indibidualizatu bat eskaintzen zaio eguneroko behaketaren ondorioz zehaztutakoa; eta, ohiko mediku azterketen bidez, eta behaketa zehatzen bidez, umearen garapen globala ezagutzen da.

Lehentasunezko harreman afektiboari dagokionez, umeak ezinbestean behar du beraren eta beraz arduratuko den helduaren arteko harreman egonkorra, izan ere, harreman horrek oinarri emozional sendoa eskaintzen dio umeari. “Erreferentziako heldu batekin harreman egonkorra eta ziurra duen umea gustura sentitu, harmonian hazi eta autorregulatu egiten da” (Herrán, 2014, 80. or.). Harreman hau ohiko jarduneko zaintza momentuetan eraikitzen da batez ere, hau da, pixoihala aldatzean, bainatzean, janztean, eranstean, azterketa medikoak egitean eta jatorduetan. Zaintza-lanak zehaztasunez eta koherentziaz gain errespetuz eta gozotasunez burutuko dira, ume bakoitzaren beharrian eta keinuei arreta sistematikoa eskainiz eta bakoitzaren erritmoraren egokitzuz.

“(…) erreferentziazko zaintzaileak kalitateko zaintzak eskaintzen dizkio ume jaioberriari, egunero-egunero, betiere sekuentzia, ordutegi eta gauzatzeko prozesu berberaren arabera (...) umearen jarduera (...) ahalik eta gutxien eteteko asmoz (...). Umeari zuzentzen zaio keinu, mugimendu edo hitz ororen ostean erantzuteko tarte bat uzten zaio, (...) umeak parte-hartze aktiboa izan eta lagundu

dezan (Hevesi, 1993). Hasiera batean erreflexuzko erantzunak izango dira, baina, apurka-apurka, apropos zuzendutako begiradak, borondatezko irribarreak eta mugimendu geroz eta kontrolatuagoak bihurtuko dira, eta, azken buruan, erantzun garatuagoak, bere borondateak bideratuak” (Herrán, 2014, 83. or.)

Zaintza momentu garrantzitsuenetako bat jateko unea da, izan ere, sozializazioaren eta gizarteratzearen faktore garrantzitsuenetako bat modu autonomoan, garbian eta egokian jatea da (Vincze, 2018). Bizitzaren lehenengo hiru urteetan, lehen haurtzaroan, gauza asko dago ikasteko, edalontzitik edatea, koilararekin jatea, murtxikatzea edo arropa edo mahaiaren garbitasunari erreparatzea, besteak beste.

Jatearen oinarrizko helburua jana umearentzako energia iturri izatea da, baina zaintza momentu hau kalitatezkoa izan dadin jatorduak zorientzua izan behar du. Umearen osasun mentala zainduz eta haziera osasungarria bermatuz, jatordua hezitzaile eta umearen arteko interakzioan oinarritzen da; eta jatordua, ume eta hezitzailearentzako, bientzako, izan behar da momentu goxoa. Honen harira, ezinbestekoa da hezitzaileak ondo ezagutzea umearen gustu eta ohiturak, bera baita modu egokian eta finean zainduz jateak dakarren alaitasun eta plazerra eskaintzeko gai den bakarra. Hori horrela, zaintza umearen ongizatean oinarritu behar da eguneko lauzpabost jatorduetan, eta elkarrekintzazko momentu erosoak izan behar da. Alegia, inor ezertara behartu gabe, umeak erabaki behar du zenbat nahi duen jan, eta ez zaio onartzen ez duen koilarakadarik emango (Vincze, 2018).

Hau horrela, jateko orduan elikatzeaz gain, umearen izaera eraiki eta honen kontzientzia hartzeko momentua ere bada, eta horretarako, berebiziko garrantzia dute helduak edo hezitzaileak jaten emateko egiten dituen mugimendu mekanikoez gain, erabiltzen duen hizkuntza, esaten diona, noiz eta nola esaten dion, eta egiten dituen keinuak, hauek noiz tartekatzen dituen eta zertarako. Izan ere, izaera eraiki eta honen kontzientzia hartzeko beste pertsonak behar ditugu ezinbestean, besteek umearen beharrian, emozio, etab. aitortuz eta onartuz eraikiko delako bere izaera. Eta nola ez, bazkalorduaren espazioa eta denbora antolatzea, jatorduek gizakiok elkarrekintzan egiten ditugun beste jarduerak bezala *hasiera*, *korapilo* eta *amaiera* bat dute, eta izen hauek emango zaizkie tarte bakoitzari lan guztian zehar.

These processes play out as three main phases, the opening (where participants are ratified and joint commitments are established), the main body (where progress, ongoing commitments and possible role reversals are coordinated), and the closing (where the intention to terminate the action is coordinated and where

participants take leave of each other. (Hessen, Genty, Rossano, Zuberbühler & Bangerter, 2017, 390. or.).

Esan bezala, umeari kalitatezko zaintzak eskaintzeko, ezinbestekoa da umea ezagutzea, Tardosek (2018) azaltzen duenez, ez daude bi ume berdin-berdinak direnak, eta zenbat eta hobeto ezagutu umearen portaerak, orduan eta hobea izango da hezitzaileak eskaintzen dion zaintza eta laguntza. Horretarako, ezinbestekoa da behaketa. “Ningún trabajo puede estar bien hecho más que si prestamos atención a lo que hacemos y verificamos su eficacia.(...) para controlar la eficacia del trabajo educativo es necesario plantearnos a nosotras mismas (...) preguntas relativas a ciertos detalles, (...) y es preciso saber observar para obtener una respuesta.” (Tardos, 2018, 116. or.). Beraz, hezitzailearen lana hobetzeko modua umeak eta umei eskaintzen dizkien inguru, material,egoera, zaintza eta abarren behaketa egitea da.

1.2. Lanaren helburuak

Lan honen helburu nagusia bazkariak behatzea da. Jateko momentua zaintza une garrantzitsuenetako bat da, eta lan honetan, Pikler-Lóczy metodologia oinarri hartuta, hezitzaile baten jarduna behatzea eta aztertzea izango da helburu orokorra. Behaketa honetan ez da hezitzailearen jardura edo jaten emateko ekintza bakarrik behatuko, honen euskarri diren hizkuntza eta keinuak ere behatu eta aztertuko dira. Hau horrela, lan honen helburu zehatzak hurrengoak izango dira:

- Hezitzailearen jardunean ekintzari berari, hizkuntzari eta keinuei dagokienez, hezitzaileak zer joera nagusi dituen behatzea, eta hiru irizpide hauen artean zein gailentzen den behatzea.
- Bazkalorduko momentu bakoitzean, hasieran, korapiloan eta amaieran, hezitzailearengan ekintza, hizkuntza eta keinuei dagokienez zer portaera nabarmentzen diren behatzea.
- Ume bakoitzaren arabera, hezitzaileak nola jokatzeko duen behatzea eta aztertzea, alegia, bazkalorduan hezitzailearen jarduna alderatzea ume batzuekin eta besteekin dagoenean.

Hau horrela, ekintzari dagokionez espero da hezitzaileak *koreografia* (Herrán, 2014) bera jarraitzea saio guztietan, bai hasieran bai korapiloan eta bai amaieran ere, baina hala ere, momentu pertsonalizatu eta elkarrekintzakoak izatea espero denez, umeen artean desberdintasunak igartzea espero da. Horrez gain, espero da hizkuntza eta keinuak ekintzaren euskarri izatea, momentu goxoa eta lasaia izatea, orain eta hemengoari buruz hitz egitea eta

etengabeko komunikazioa mantentzea, umeari adierazteko eta erantzuteko denbora emanaz. Gainera, umea bere buruaren eta jardueraren kontzientzia hartzen ari den une honetan, parte hartzeko aukera ematea eta bere keinuak kontutan hartu eta hezitzaileak horren arabera jardutea espero da.

2. Metodologia

Behaketan oinarritutako metodologia erabili eta maiztasunaren azterketa bat egin da ikerketa lan hau aurrera eramateko, izan ere, “La metodología observacional permite estudiar la ocurrencia de conductas perceptibles registradas y cuantificadas mediante un instrumento adecuado y parámetros convenientes, y analizar las relaciones de secuencialidad, asociación y covariación existentes en ellas” (Belza, Herrán & Anguera, 2019, 30. or.). Bildutako datuen trataera eta interpretazioa medio, aurretiaz aipatutako helburuei erantzungo zaie.

- **Diseinua**

Behaketa lan hau aurrera eramateko testuinguru erreal batean, hain zuzen ere, San Inazio Haur Eskolan, bazkalorduak grabatu dira interesgunea hezitzailearen jardunean jarrita. Grabaketetan hezitzailea txandaka lau umerekin ikusi daiteke lanean, eta ostean grabaketok aztertu dira eta bertako datuak erregistratu ikerketaren helburuak betetzeko. Hau horrela, diseinu *idiografikoa* erabili da, hezitzaile bakar batengan jarri delako fokoa; *multidimentsionala* izan da, parametro bat baino gehiago kontuan izan delako, kasu honetan ekintzak, hizkuntza eta keinuak; eta *segimenduzkoa* izan da, hamar eguneko jarraipena egin delako (Anguera, 2003).

- **Partehartzaileak**

Ikerketa honetan sei eta zortzi hilabete bitarteko lau umek (lanean zehar 1. umea, 2. umea, 3. umea eta 4. umea bezala ageri direnak erregistratuta) eta haien erreferentziazko hezitzaileak hartu dute parte. Guraso eta haur eskolaren baimena eskatu eta Datu Pertsonalen Babeserako Legea (15/1999 Lege Organikoa, LOPD) errespetatu da.

Gelan beste hezitzaile bat ere badago, baina, laginean ez dago datu nahikorik honen jarraipen bat egiteko lau saiotan baino ez direlako jaso bere datuak (hiru bazkalordu 2. umearekin eta bat 3. umearekin). Eta ikusita datuokin ez dagoela aukerarik ez jarraipenik ez alderapenik egiteko, ikerketa hezitzaile bakar baten jardunen zentratu da.

- **Tresnak**

Behaketarako erabilitako tresna nagusia *grabaketak* dira, eta grabaketa hauetan, hamar egunetan zehar hezitzaileak lau umeri eskainitako bazkariak jaso dira. Gertatu izan da egun

batzuetan umeren bat etorri ez izana edo beste hezitzaile batek eskaintzea janaria umeren bateri, eta hau horrela, *etortze taula* bat bete da, hezitzaileak ume bakoitzarekin zenbat bazkalordu egin dituen jakiteko. Taulak dira lan honetako bigarren tresna nagusiak.

1. Taula: *Ume bakoitzari eskaintako bazkari kopurua.*

Umeak/Saioak	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	Guztira
1. Umea	Bai	Bai	Bai	Bai	Bai	Ez	Bai	Bai	Bai	Ez	8
2. Umea	Ez	Bai	Bai	Ez	Ez	Ez	Ez	Ez	Ez	Ez	2
3. Umea	Bai	Ez	Bai	Bai	Bai	Bai	Bai	Ez	Bai	Bai	8
4. Umea	Ez	Ez	Bai	Bai	Bai	Ez	Bai	Bai	Bai	Bai	7

Ostean, bideoetako informazioa ateratzeko, alegia, datu erabilgarriak lortzeko, hezitzailearen jardunari buruz behatuko diren parametro guztiak barne hartzen dituen taula bat sortu da. Behaketa honetan, portaerez gain, *behaketa taula* osatzen duten beste hainbat alderdi hartu behar dira kontutan, hauetariko batzuk aldi berean gertatzen dira gainera, eta horrek lana are konplexuagoa izatea dakar. Irizpide horiek *ekintzak*, *hizkuntza* eta *keinuak* dira, eta hauen barruan beste hainbat portaera zehaztu dira. Horrez gain, bazkalorduko uneak ere bereizi behar izan dira, hasiera, korapiloa eta amaiera (Hessen et al., 2017) izena eman zaie eta hamar saioak zutabetan daude banatuta; bertan, hezitzaileak saio bakoitzean portaera bakoitza zenbat aldiz agertu edo egiten duen jasotzen da. (Behaketa taulak beteta 2. eranskinean)

2. Taula: *Behaketa taula.*

	Saioak	X. umea																								Guztira			
		Hasiera												Korapiloa						Amaiera									
		1	2	3	(...)	9	10	To	1	2	3	(...)	9	10	To	1	2	3	(...)	9	10	To							
Ekintza	E1: Janaria prestatzen du																												
	E2: Umea besotan hartzen du																												
	E3: Jateko lekuan jartzen da																												
	E4: Adur zapia janzten dio																												
	E5: Janaria edo tresna erakusten dio																												
	E6: Ura eskaintzen dio																												
	E7: Janaria eskaintzen dio																												
	E8: Aurpegia edo eskua garbitzen dio																												
	E9: Umea berkokatzen du																												
	E10: Itxaron egiten du																												
	E11: Adur zapia eransten dio																												
	E12: Gasik dituen begiratzen du																												
	E13: Aldagelara darama																												
	E14: Lurrean uzten du																												
Guztira saioko																													
Hizkuntza	H1: Ekintza aurreratzen dio																												
	H2: Isilik dago																												
	H3: Hezitzaileak bere jardunari hitzak jartzea																												
	H4: Umearen jardunari edo egoerari hitzak jartzea																												
	H5: Galderak egiten dizkio																												
	H6: Baimena eskatzen dio																												
Guztira saioko																													
Keinuak	K1: Elkar begiratzen dute																												
	K2: Irribarre egiten dio																												
	K3: Umearen keinuak errepikatzen edo imitatzen ditu																												
	K4: Umearen keinuak interpretatu eta erantzuten ditu																												
	K5: Laztandu egiten du																												
Guztira saioko																													
Guztira umeko																													

- **Prozedura**

Ikerketa lan hau burutzeko, lehenengo urratsa gaia aukeratzea, eta horren arabera, bisitatutako bi haur eskolen artean ustez behaketa lanerako emankorrena izango dena aukeratzea izan da. San Inazioko Haur Eskolako eta grabatutako umeen gurasoen oniritzi eta prestutasuna esku artean izanik grabaketak egin dira hamar egunetan zehar. Hamar egunak Urtarrilaren 22an hasi eta Otsailaren 8ra arteko hamar egun izan dira, tartean grabaketarik gabeko lau egun egon dira unibertsitateko tutoretzen eta praktiketako eskolako ekintza bereziengatik. Grabaketak amaiturik, laginaren azterketa bat egin da, bideoak behatu eta grabaketen erregistroa eta lortutako datuen sistematizazioa eskuz egin dira lehenengo (adibideak 1. eranskinean), eta zehaztutako irizpideen *maiztasuna* jaso da, gero, datuon lanketa bat egiteko helburuak betetze aldera.

Erabilitako irizpideei dagokionez, aurrerago aipatu bezala hezitzailearen ekintzak, hizkuntza eta egiten dituen keinuak izan dira. Aldi berean, irizpide nagusi hauei lotutako hainbat portaera zehaztu dira behaketa egiteko. Lagina aztertzerako orduan, jateko momentuan hiru momentu bereizi dira, hasiera, korapiloa eta amaiera, izan ere, hainbat ikerketaren ostean ikusi da gizakiok elkarrekintzan egiten ditugun jardueretan beti ageri dela eskema hau (Hessen et al., 2017). Hau horrela, aipatutako irizpide guztiak eta bakoitzari dagozkion portaerak hiru momentu horietan zer maiztasunekin agertzen diren erregistratu da.


Ondoren, laginean lortutako emaitzak taulan bildu eta batura egin da, ateratako datuekin grafikoak sortu dira, eta emaitzon ehunekoak atera ahal izan dira. Lanaren urrats honetan, informazioa helburuei erantzuteko aukeratu eta antolatu behar izan da. Honi lotuta, lortutako emaitzen eztabaida egin da, haur eskolako hezitzaile honen jardunaren errealitateak eta lortutako emaitzek zer garrantzi duten azaltzeko. Amaitzeko, egindako lanaren hainbat ondorio ere plazaratu dira.

3. Emaitzak

Behaketan lortutako emaitzak lanaren helburu orokorrekin eta zehatzekin bat datoz, eta bazkarien behaketa sakona egiteak urratsez urrats, helburu zehatzak betez, joatea eskatu du. Alde batetik, hezitzailearen jardunean ekintzari berari, hizkuntzari eta keinuei dagokienez dituen joera nagusiak, eta hiru irizpide hauen artean zein gailentzen den. Bestetik, bazkalorduko momentuetan, ekintza, hizkuntza eta keinuei dagokienez zer portaera nabarmentzen diren. Eta hirugarrenez, hezitzaileak ume batzuekin eta besteekin nola jokatzeko duen alderatzearen ondorioz lortutako emaitzak azalduko dira orain.


3.1. Hizkuntza, ekintza eta keinuen portaera nagusiak eta irizpideen artean gailenduena

Atal honetan ume bakoitzaren kopuruak kontutan izan dira (3. eranskina) guztien batura egiteko. Eta guztien datuetatik atera ahal izan da orokorrean hezitzailearen jardunean zer irizpide eta portaera gailentzen diren.



1. *grafikoa.* Irizpide gailenduena momentuka.


Bazkalorduko momentu guztietan, bai hasieran bai korapiloan eta bai amaieran, gailentzen dena hizkuntza da, ekintza bigarren eta keinuak azkenik. Hau horrela, bazkalordu guztia bere osotasunean begiratzuz gero, lortutako portzentaiek ere hori erakusten dute.



2. *grafikoa:* Hezitzailearen jardun osoaren joera.

Bazkalordu guztian zehar hizkuntza %51ko portzentaiarekin da irizpiderik nabarmenena. Bigarren gailenduena %31rekin ekintza, eta hirugarrena, %18rekin keinuak.


Lehenengo helburuari erantzunez, irizpideen barruan hainbat portaera zehaztu dira eta hurrengo grafikoak umeen datuen bilketa erakusten du.



3. *grafikoa:* Portaera nagusiak ume guztiengan.


Portaerei dagokienez, ume guztien datuak kontutan hartuta hezitzailearen joera orokorrak itxarotea (E10), aurreratzea (H1) eta umearen keinuak interpretatu eta erantzutea (K4) dira.

3.2. Hasiera, korapiloan eta amaieran gailentzen diren portaerak




4. *grafikoa:* Hasierako joera nagusiak irizpide guztiak kontutan hartuta

4. grafiko honetan hezitzaileak lau umeekin duen jardunaren datuak daude ikusgai, hain zuzen, ume guztiekin hasierako momentuan zer portaera errepikatzen diren. Ikusi daitekeenez, hasierako momentuan saio guztietan eta ume guztiekin errepikatzen diren ekintzak janaria prestatzea (E1), umea besoetan hartzea (E2), jateko lekura eramatea (E3) eta adur zapia janzte (E4) dira. Huez gain, gehien nabarmentzen diren ekintzak janaria edo tresnak erakustea (E5), %0-%15, eta itxarotea (E10), %0-%3, dira. Hizkuntzari dagokionez, aurreratzea (H1) nabarmen gailentzen da, %0-%3ko portzentaiarekin; ondoren, isilik egotea (H2), eta galderak egitea (H6) dira gehien errepikatzen direnak 1. umea eta 3. umearen kasuetan; eta, 2. umearen eta 4. umearen kasuan, hezitzailearen eta umearen jardunari edo egoerari hitzak jartzea (H3 eta H4). Azkenik eta keinuei dagokienez, hezitzaileak umearen keinuak interpretatzea eta erantzutea (K4) gailentzen da, %0-%3; hurrengo nabarmenenak elkar begiratzea (K1), %0-%1, eta irribarre egitea (K2), %0-%1, dira.



5. *Grafikoa:* Korapiloko joera nagusiak irizpide guztiak kontutan hartuta.

Hezitzaileak bazkalorduko korapiloan dituen joera nagusiak ikusten dira 5. grafiko honetan. Ekintzei dagokienez, gehien errepikatzen diren irizpideak itxarotea (E10), %0-%4, janaria eskaintzea (E7), %0-%4, eta janaria edo tresnak erakustea (E5), %0-%2, dira. Beste momentu batzuetan ageri ez diren eta korapiloan presentzia esanguratsua duten ekintzak ura eskaintzea (E6), aurpegia edo eskuak garbitzea (E8) eta umea birkokatzea (E9) dira. Hizkuntzari dagokionez, aurreratzea (H1), %0-%7, eta umearen jardunari hitzak jartzea (H4), %0-%6, dira nabarmenenak; eta hauen ostean, isilik egotea (H2) eta hezitzailearen jardunari edo egoerari hitzak jartzea (H3). Keinuei dagokienez, umearen keinueak interpretatu eta erantzutea (K4), %0-%4, eta elkar begiratzea (K1), %0-%3, dira gailentzen direnak.




6. *grafikoa:* Amaierako joera nagusiak irizpide guztiak kontutan hartuta.

Amaierako momentuan, itzarotea (E10), %1-%4, aurpegia garbitzea (E8), %0-%2, eta besoetan hartzea (E2), %0-%3, nabarmentzen dira; baina, hauez gain, bazkalorduan zehar amaierara arte agertzen ez diren ekintzak ikusi daitezke 6. grafiko honetan. Ekintzok adur zapia eranstea (E11), gasik duen begiratzea (E12), aldagelara eramatea (E13) eta lurrean uztea (E14) dira. Hauen artean lurrean uztea gailentzen da, %0-%2ko portzentaiarekin. Hizkuntzari dagokionez, aurreratzea (H1) gailentzen da, %1-%8, eta keinuen artean laztantzea (K5), %0-%2.


3.3. Ume bakoitzaren txanda denean gailentzen diren hezitzailearen portaerak

Adibide moduan 1. umearen grafikoak erabiliko dira, adibide esanguratsuenetariko bat delako, beste umeenak eranskinetan egongo dira ikusgai. Hala ere, guztiek datuen berri emango da.




7. *grafikoa:* Ekintzaren joera 1. umearengan

Ekintzari dagokionez eta bazkalordu osoa kontutan hartuta, hezitzaileak lehenengo umearen jateko txanda denean, saio guztietan zehar gehien errepikatzen dituen ekintzak itzarotea (%28), janaria eskaintzea (%24), eta hein txikiagoan janaria edo trena erakustea (%12) dira.



8. grafikoa: *Hizkuntzaren joera 1. umearengan*

Hizkuntzaren harira, nabarmen gailentzen da aurreratzea (%34) eta horren atzetik, umearen jardunari edo egoerari hitzak jartzea (%22). Baimena eskatzearena %1ean baino ez du egin hamar saioetan, ordez, galderak egiten ditu (%13) eta isilik (%15) egon da.



9. grafikoa: *Keinuen joera 1. umearengan.*

Keinuei erreparatuz, umearen keinuak interpretatu eta erantzutea (%39) eta elkar begiratzea (%31) nabarmentzen dira gehien, atzetik, irribarre egitea (%18). Keinuak imitatzea, ostera, gutxitan egiten du.

Beste umeen datuak begiratzuz, ikusi daiteke hezitzaileak 2. umearen bazkarietan besoetan hartzea (E2), %14, janaria eskaintzea (E7), %14, eta itxarotea (E10), %11, errepikatzen dituela gehien. Hizkuntzari dagokionez, umearen jardunari hitzak jartzea gailentzen da (H4), %37, eta

honen atzetik, aurreratzea (H1), %24; eta hein txikiago batean, galderak egitea (H5), %14. Keinuei dagokienez, %44ko portzentaiarekin, umearen keinuak interpretatzea eta erantzutea (K4) da gailenduena. (4. eranskina).

3. umearen grafikoak ikusita (5. eranskina), esan daiteke ekintza nagusiak itxarotea (E10), %24, eta janaria eskaintzea (E7), %17, direla; hein txikiago batean baina sarritan errepikatzen dituenak, janaria edo tresnak erakustea (E5) eta aurpegia garbitzea (E8) dira. Hizkuntzari dagokionez, aurreratzea (H1) gailentzen da, %31, eta ostean, umearen egoerari eta jardunari hitzak jartzea (H4), %27. Keinuen harira, umearen keinuak interpretatzea eta erantzutea da keinu nagusia (K4), %36; baina, beste keinuen artean elkar begiratzea (K1) eta irribarre egitea (K2) ere nabarmen gailentzen dira.

4. umeari dagokionez (6. eranskina), ekintzen artean hezitzaileak gehien errepikatzen dituenak janaria eskaintzea (E7), %25, itxarotea (E10), %25, eta janaria edo tresnaren bat erakustea (E5), %17, dira. Hizkuntzari erreparatuz, aurreratzea (H1), %33, eta keinuei dagokienez, umearen keinuak interpretatu eta erantzutea (K4), %59, gailentzen dira.

3 Eraitzen eztabaida

Eraitzei erreparatuz ikusi daiteke saio guztietan errepikatzen direla hainbat joera eta portaera, hau kontzienteki hartutako erabakien ondorio da; alegia, hezitzaileak ez du ausaz jokatzeko.

Hezitzailearen jardunean ekintzaren, hizkuntzaren eta keinuen joerei dagokienez, eta bazkalordu osoa kontutan hartuta, ateratako portzentaiak erakusten dute zaintza momentu guztian zehar hizkuntza nabarmentzen dela ekintzaren eta keinuen ginetik. Hala ere, hirurak dira bata bestearen euskarri, ekintza bera aldi berean hizkuntza eta keinuz lagunduta ageri delako jardun osoan zehar. Eta arrazoia argia da, David eta Appellek (2010) azaltzen duten legez Pikler-Lóczy eredua arrakastatsu egiten duten alderdietako bat umea pertsona, eta ez objektu baten, modura tratatzea da. Horren barruan sartzen da zaintza uneetan umeari zer datorren aurreratzea, hezitzailea egiten ari dena edo inguruan gertatzen ari dena azaltzea, edo hitz egiten zaion bitartean begiratzea. Eta ondorioz, hizkuntza gailentzen da ekintza eta keinuak baino gehiago, baina aurrerago esan bezala, hiru irizpideak dira beharrezkoak zaintza momentua kalitatezkoa eta elkarrekintzazkoa izan dadin. Elkarrekintza honen eragile izateak umeak bere buruaren kontzientzia hartzea bultzatzen du:

“(…) el hecho de que le den de comer y más adelante comer solo, debe resultarle placentero, (...) las actividades de atención personal se intenta estimular el placer

que el niño experimenta al manipular (...) y hacer cosas por sí mismo, (...) constuyendo (...) una relación afectiva real y significativa, y asimismo (...) contribuir a que tome conciencia de sí mismo.” (David eta Appell, 2010, 37. or.).

Bazkalordua momentuka aztertuta ikusi da nola bai hasieran, bai korapiloan, bai amaieran beste ekintza portaeren artean nabarmen gailendu dena itxarotea dela (E10), bazkalordu guztian zehar ez dago presaren inolako keinurik eta hezitzaileak umeari behar beste denbora eman eta eskaintzen dio. Bazkalordu ororen hasieran, hezitzaileak bazkaria prestatzen du (E1), umea besoetan hartzen du (E2), jateko lekuan jartzen da (E3) eta adur zapia janitzen dio (E4). Umearen ikuspuntutik hezitzaileak leku bakoitzean egiten dituen ekintzak zer datorren aurreratzen laguntzen diote, horrela datorren horretarako prestatzeko. Eta, hezitzailearen ikuspuntutik, espazioa eta behar dituen tresnak antolatu eta prestatzeak, gero zaintza unean are libreago egotea ekarriko du umearekin elkarrekintzan zentratzeko (García eta González, 2008). Gailentzen den portaera janaria eta bazkalorduan zehar erabiliko dituzten tresnak erakustea da (E5), izan ere bazkalorduen hasieran, “(...) se procede a la presentación del objeto que va a utilizarse: el vaso, la cuchara(...) La educadora muestra el objeto, favorece sus primeros intentos de tocarlo (...)” (David eta Appell, 2010, 39. or.). Korapiloan, janaria eskaintzea (E7) egiten du maiztasun handienarekin, eta hein txikiago batean baina saio guztietan, janaria edo tresnak erakustea (E5), ura eskaintzea (E6), aurpegia edo eskuak garbitzea (E8) eta umea birkokatzea (E9). Postura aldatzeko beharrezana dagoenean hezitzaileak itxaron egiten du eta gero birkokatzen du umea bere berezko mugimenduz baliatuz aldaketa egiteko. (David eta Appell, 2010). Amaieran, saio guztietan errepikatzen dituen ekintzak aurpegia edota eskuak garbitzea (E8), adur zapia eranstea (E11), umea besoetan hartzea (E2) eta lurrean uztea (E14); biberioa hartzen duten umei gasik duten ere begiratzen die (E12) lurrean utzi aurretik, eta zenbait saiotan, umeak aldagelara eramaten ditu (E13) lurrean utzi aurretik. Hau horrela, “Las diferentes secuencias de cada actividad de atención personal se realizan siempre de forma idéntica incluso en los detalles. Las educadoras las aprenden y las respetan, de modo que el niño puede, o llegará a poder, anticiparlas.” (David eta Appell, 2010, 38. or.).

Hizkuntzari dagokionez, bai hasieran bai korapiloan eta bai amaieran, gailentzen dena aurreratzea (H1) da. Eta hein handiago edo txikiago batean, hizkuntzaren beste portaerak ere ageri dira. Zaintza uneetan hezitzailea uneoro arduratzen da umearen parte hartzeaz, eta parte hartzea bultzatzen duen neurrietako bat hizkuntza da. “A lo largo de la actividad de atención personal, la educadora habla al niño mirándole. Le explica lo que le hace (...) también le comenta sus reacciones (...) o le pregunta qué prefiere(...)” (David eta Appell, 2010, 39. or.).

Esaten dituen esaldi eta esaldi artean isiluneak (H2) sumatzen dira eta isilune horiek itxarotearekin batera umeari denbora eskaintzearekin daude lotuta; izan ere, “No se trata nunca al niño como un objeto sino como un ser que siente, observa, memoriza y comprende (...)” (David eta Appell, 2010, 38. or.); beste hitz batzuetan, Pikler-Lóczy metodologiak umea zuzentzen zaion hizkuntza ulertzeko gai den pertsonatzat hartzen du, eta batez ere, zaintzen mintzakide aktibo bezala.

Hau horrela, gailendutako portaerak, batez ere, itxarotea eta aurreratzea, umearen kooperazioarekin daude lotuta. Hevesik (2018) azaltzen duenez, zaintza momentuetan umearen eta hezitzailearen jarduna ekintza komun batera dago bideratuta; eta hezitzailearen ardura da etengabe umearen partaidetzaren zain egonez, umearen kooperazioa sortzea eta bere bitartez autonomia indartzea, zaintza erabat barneratu arte, eta laguntzarik gabe egin ahal izan arte. Umearen kooperazioa eskatzeak hezitzailearen mugimendu mekanikoak saihestu eta umearen garapenarekiko interesa pizten du. Horretarako, hezitzaileak itxaron egin behar du, eta bere keinu eta hitzek umearen kooperazioa bideratu behar dute; horrez gain, umearen keinu eta bat-bateko mugimenduak aprobeztatu behar ditu, esate baterako, umea birkokatze edo bere arreta berreskuratzeko. Umea hazten doan heinean kooperazio honen kontzientzia hartzen du borondatezkoa bihurtzen den arte (David eta Appell, 2010). Hala ere, umearen kooperazioa ez da umeak bazkalorduan parte hartzeko egin egiten duen horretan geratzen, “(...) el objetivo de la cuidadora no es solo el gesto concreto, sino el proceso de atención recíproca, del que ese gesto forma parte.” (Hevesi, 2018, 191. or.).

Aipatutakoari estuki lotuta ageri dira keinuei buruz lortutako emaitzak, korapiloan eta urritasunez ageri den umearen keinuak imitatzea (K3), eta amaieran, laztantzea (K5) nabarmentzen direla salbu, beste portaerak hasieran, korapiloan eta amaieran agertzen eta errepikatzen dira: elkar begiratzea (K1) eta irribarre egitea (K2). Baina, guztien artean eta bazkalordu guztian zehar gailentzen dena umearen keinuak interpretatu eta erantzutea da (K4). Umeak ezinbestean behar du lehentasunezko harreman sendo, afektibo eta esanguratsu bat hezitzailearekin, honek esan nahi du hezitzaileak umearen jardura autonomoa aintzat hartzen duela, eta bai umea eta bai heldua, biak direla elkarrekintza honen eragile begiradaren, ukimenaren eta hitzen bidez. “El adulto se deja guiar por las señales y las manifestaciones del bebé. Las responde, las refuerza y les da sentido” (Falk, 2018, 108. or.).

Ume bakoitzarekin gailentzen diren portaerei dagokienez, ume bakoitza mundu bat da eta hezitzaileak koreografia mantentzen duen arren, eta ume guztiekin ekintzako portaera komunak gailendu, desberdintasunak daude, esate baterako, 2. umearekin besoetan hartzea,

edo 3. umeari aurpegia eta eskuak garbitzea gailentzen dira beste portaerez gain. Beraz, ume batetik bestera aldea txikia da, hezitzaileak tinko mantentzen dio bere jardunari; alegia, guztiei aurreratzen dizkie ekintzak, haien keinuak interpretatu eta erantzuten ditu, aurpegira begiratzen die hitz egiterakoan, eta koreografia ere mantendu egiten du; baina, desberdintasunak egon badaude. Hala ere, ezin da hezitzaileak ume batekin eta besteekin dagoenean dituen aldaketa edo desberdintasunei buruz ezer zehatzik esan, behaketa lan honetan maiztasuna baino ez delako hartu kontutan. Denbora edo bestelako faktore batzuk ere kontutan hartu izan balira beste emaitza batzuk lortuko lirateke, eta orduan bai aldea argi ikusiko litzateke.

4 Ondorioak

- **Lanarekin lotutakoa**

Behaketa oinarritutako lan hau egoera erreal baten egin izanak, helburuak betetzea ahalbidetu du eta emaitza argi eta esanguratsuak lortu dira.

Argi geratu da zer faktorek egiten duten zaintza kalitatezkoa izatea, eta bazkalordua bezalako momentu batek zer nolako garrantzia duen. Kontua da, egunean lauzpabost aldiz jaten duela umeak, eta ezinbestean eskaini behar zaio segurtasunezko eta bere beharrian eta nahietara egokitutako, elkarrekintzazko momentu bat. Izan ere, jateko ekintzak, jardun mekanikoak, ez du zentzurik edo esangurarik keinu eta hizkuntzarik gabe. Lehen haurtzaroan, “Gizarte-giroa ingurugiro naturalari gainjartzen zaio (...), eta, ondorioz, (...) gizarte harremanek mundu fisikoarekiko harremanek baino askoz garrantzi handiagoa dute”. (Wallon, 2018, orr. 35). Izan ere, emozioak eta jarduera sensoriomotorrak behin eta berriz gauzatuz ohiko testuinguruetan, umearen gaitasunez gain bere nortasuna ere eraikiko da; norbanakoaren gauzak egiteko era propioa. Beraz, umea bere inguru, bere buruaren eta bere jardunaren kontzientzia hartzen dagoen garai honetan ezinbestekoa da lehendabiziko harreman afektiboak izatea bere hezitzailearekin, horrek bere jardunean aurrera egiteko segurtasuna eskaintzen diolako; eta zaintza uneetan gertatzen ari dena hitzez adieraztea, umeak berak egiten duenari hitzak jartzea, eta batez ere, aurreratzeak, bere buruaren eta inguruaren kontzientzia hartzen laguntzen diolako.

Hitzez aurreratzeak eta ekintzen erregularitasunak, kasu honetan, bazkalordu guztietan mantentzen duen koreografiak umeari zer datorren aurreratzeko, bere burua prestatzeko, eta jateko momentuan parte hartzeko aukera ematen dio. Eta keinuak harreman afektiboaren oinarri eta ekintzaren euskarri izango dira, hezitzaileak umeari aurpegira begira hitz egiten dio,

jaten lasaitasunez eta mugimendu finez ematen dio, umearen keinuak kontutan hartu eta hauek erantzuten ditu eta laztandu egiten du.

Hau horrela, esan daiteke jateko momentua zaintza une garrantzitsuenetako bat izanik hainbat dimentsio barne hartzen dituen momentua dela, eta hezitzaileak kontzienteki hartutako erabakien arabera jokatu behar du umeari ahalik eta kalitate handieneko zaintza eskaintzeko. Baina, ezin daiteke honen garrantziaz jabetu umeak zein gure lana behatu eta honen inguruan hausnartu ezean, Tardosek (2018) azaltzen duenez behaketa nahitaezkoa da galderen erantzunak erdiesteko.

Lan honen muga handienetako bat denbora kontutan hartu ezin izana izan da, emaitzak are aberatsagoak liratekeelako. Horrez gain, aurrerantzean egiteko ikerketa lanetarako proposamen interesgarria litzateke lan honi jarraipena eman, eta umeak altzoan jaten duenetik mahaian bakarrik jaten duen arteko behaketa egitea. Horrela, begi bistan geratuko litzateke zein izan den lan honen guztiaren fruitua. Azkenik ezin utzi aipatu gabe lan honetan egin behar izan den sintesi lana. Laburtze lanak are konplexuago bihurtu du ikerketa burutzea, eta landutako hainbat alderdi, bai teorikoak zein behatutakoak, alde batera utzi behar izan dira lanaren dimentsioagatik.

- **Pertsonalak**

Graduari amaiera biribila emateko aukera paregabea izan da Gradu Amaierako Lan hau. Ezjakintasunez eta beldurrez hasitako lanari, inoiz beste ezeri eskaini gabeko interes eta denbora eskaini diot, eta lehen haurtzaroari merezi duen beste garrantzia emateko neuk ere neure hazia jarria dudala esan daiteke. Baina, hau ez litzateke posible San Inazio Haur Eskolako eta bertako gurasoen prestutasun eta laguntzarik gabe.

Lanean zehar hainbatetan sentitu izan naiz noraezean, gaia aukeratze hutsak hainbat aterean artean eta zein zabaldu ez nekiela jarri ninduen, eta behin aukeratuta, zehaztasunetara iritsi arteko bidea ere sasiz beterik egon da. Hala ere, azpimarratzekoa da tutoretzak taldean egiteak asko lagundu didala lana bideratzen eta gauzatzerako orduan, graduan lehenengoz egin dugu benetako lan bat taldean, eman beste jaso dut, eta jaso beste eman.

Behin lana amaituta, pentsatzen dut botatako izerdi guztiak merezi izan duela, begi bistan geratu baita zaintza uneen, kasu honetan, bazkalorduen garrantzia, eta honen barruan hizkuntzak duen pisua. Sarri ez gara konturatzen edo ez dugu tarterik hartzen gure jardueraren inguruan hausnartzeko hobetzeko asmoz. Baina, gure lanean umea izango da protagonista, eta hezitzaileok ezinbestean hausnartu behar dugu gure lanaren inguruan, umeari eskaintzen

Gradu Amaierako Lana. BILBOKO HEZKUNTZA FAKULTATEA

dizkiogun egoeren inguruan, egiten dizkiegun keinuen inguruan eta haiekin hitz egiteko dugun moduaren inguruan; izan ere, bizitzako lehenengo urteetan gertatzen dena bizi osorako izango baita transzendentala, eta guk geuk, hezitzaileok, ezinbesteko papera dugu eskolaratzea inoiz baino goiztiarragoa den garai honetan.

Erreferentziak

- Angera, M. T. (2003). La observación. In C. Moreno Rosset (Arg.), *Evaluación psicológica. Concepto, proceso y aplicación en las áreas del desarrollo y de la inteligencia* (271-308. or.). Madrid: Sanz y Torres.
- Belza, H., Herrán, E., & Anguera, M. T. (2019). Early childhood education and cultural learning: systematic observation of the behaviour of a caregiver at the Emmi Pikler nursery school during breakfast/Educación temprana y aprendizaje cultural: observación sistemática de la conducta de la educadora Pikler durante el desayuno. *Infancia y Aprendizaje*, 42(1), 128-178.
- David, M. eta Appell, G. (2010). *Lóczy, una insólita atención personal*. Barcelona: Ediciones Octaedro.
- Falk, J. (2018). Lóczy cumple cuarenta años. In E. Herrán, (Arg.). *Claves de la educación Pikler-Lóczy: Compilación de 20 artículos escritos por sus creadoras*.(38-58. or.). Budapest: Asociación Pikler-Lóczy de Hungría.
- Falk, J. (2018). Los fundamentos de una verdadera autonomía en el niño pequeño. In E. Herrán, (Arg.). *Claves de la educación Pikler-Lóczy: Compilación de 20 artículos escritos por sus creadoras*.(89-114. or.). Budapest: Asociación Pikler-Lóczy de Hungría.
- García, A. eta González, L. (2008). *Desarrollo Infantil Primer año de vida. Factores del entorno*. Buenos Aires: Ministerio de Salud Presidencia de la Nación
- Herrán, E. (2014). Pikler-Lóczy eredua: zaintzea denean hezkuntzaren abiapuntua. *Tantak*, 26 (2), 77-100.
- Heesen, R., Genty, E., Rossano, F., Zuberbühler, K., & Bangerter, A. (2017). Social play as joint action: A framework to study the evolution of shared intentionality as an interactional achievement. *Learning & behavior*, 45(4), 390-405.
- Hevesi, K. (2018). Verdadera cooperación con el bebé. In E. Herrán, (Arg.). *Claves de la educación Pikler-Lóczy: Compilación de 20 artículos escritos por sus creadoras*.(189-195. or.). Budapest: Asociación Pikler-Lóczy de Hungría.
- Pikler, E. (1984). *Moverse en libertad: desarrollo de la motricidad global*. Madrid: Narcea.
- Tardos, A. (2018). El papel de la observación en el trabajo educativo. In E. Herrán, (Arg.). *Claves de la educación Pikler-Lóczy: Compilación de 20 artículos escritos por sus creadoras*. (115-124. or.). Budapest: Asociación Pikler-Lóczy de Hungría.

Vincze, M. (2018). Del biberón a la autonomía. In E. Herrán, (Arg.). *Claves de la educación Pikler-Lóczy: Compilación de 20 artículos escritos por sus creadoras.* (207-232. or.). Budapest: Asociación Pikler-Lóczy de Hungría.

Wallon, H. (2018). Harreman afektiboak. Emozioak. In E. Herrán(Arg.). *Haurtzaroaren psikologia.*(35-51 or.). Bilbo: Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua.

Wallon, H. (2018). Pertsona. In E. Herrán(Arg.). *Haurtzaroaren psikologia.*(65-72 or.). Bilbo: Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua.